

# LAZTAN BAT

(Rumba-aidea)

1.

Laztan bat, laztan bat,  
edenez betea (1) eman zenidan bart.  
Laztan bat, laztan bat,  
arazkero mila bider damutu zat.

Laztan arek ondatu dit bizia:  
laztan arek galdu nere zoria.  
Laztan bat zan atzo nere zeru:  
laztan bat da gaur nere inpernu.

2.

Laztan bat, laztan bat,  
arazkero gofoto dezu neretzat.  
Laztan bat, laztan bat,  
arazkero nere biotzak negar bat.

Laztan arek garaztu dit bizitza:  
laztan arek ekari zorigaitza.  
Laztan bat zan atzo nere zeru:  
laztan bat da gaur nere inpernu.

3.

Laztan bat, laztan bat,  
arazkero argirik ez da neretzat.  
Laztan bat, laztan bat,  
arazkero nere bizia inpernu bat.

Laztan arek uratu dit biotza:  
laztan arek sortu dit eriotza.  
Laztan bat, zan atzo nere zeru:  
laztan bat, da gaur nere inpernu.

*Bukatzeko:*

¡Laztan bat!

(1) Edenez betea — Benenez betea.